

**"HEZKUNTZA ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa ezabatzea Bizkaiko lurraldean" DELAKOAN AURREIKUSITAKO JARRAIPEN BATZORDEAREN TXOSTENA**

**2011-2012 IKASTURTEA**

**HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza)**

**FORU ALDUNDIA (Gizarte Ekintza Saila)**

**EUDEL**

## AURKIBIDEA

	Orrialdea
<b>1. HITZAURREA</b>	<b>3</b>
<b>2. PROGRAMAREN HELBURUAK</b>	<b>4</b>
<b>3. DATU BILKETA</b>	
3.1 Terminoen definizio operatiboa: absentismoa, eskolagabetzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua	5
3.2 Datuak biltzeko jarraitu den prozedura	5
<b>4. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAREN</b>	<b>6</b>
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	12
4.3 Absentismoaren eta eskolagabetzearen banaketa Ikuskaritzako eskualdeka	13
4.4 Ikastetxe kaltetuak	13
4.5 Datuen bilakaera	14
<b>5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA</b>	<b>17</b>
<b>6. ONDORIOAK-SINTESIA</b>	<b>24</b>
<b>7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK</b>	<b>28</b>
<b>8. ESKERRAK</b>	<b>30</b>
<b>9. ERANSKINAK</b>	
9.1 – I. eranskina: Galdetegiak	33
9.2 – II. eranskina: Bibliografia	37

## 1. HITZAURREA

“*Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauzte* Bizkaiko lurraldean” egitasmoan aurreikusita dagoen Jarraipen Batzordeak iragan zortzi ikasturteetan zehar txostenak egin zituen Programa horretan parte hartzen duten hiru Erakundeen jokabideari buruz; hona hemen erakundeok: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horien bitartez jakin ahal izan da absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa Bizkaiko Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako ikasleei (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dagokienez, baita Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloan (3-6 urte) ere. Bestalde, parte hartzen duten pertsonen iritzia ere jaso da, faktore hori gakoa baita hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Jarraian aurkezten den txostenak –bederatzigarren urteari dagokio (2011-12 ikasturtea) Programa ezarri zenez geroztik– berriro ere jakinarazi nahi du absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa ez ezik bere bilakaera ere bai. Izan ere, aurreko ikasturteetan jasotako datuek erreferentzia gisa balio dute konparaketak ezarri ahal izateko. Konparaketa horien emaitza gisa esan daiteke ikasle absentista eta eskolatu gabeen kopuruak gora egin duela aurreko ikasturtearekin alderatuta (122 gehiago aurtengo ikasturtean). Datuak zehaztasun handiagoz aztertuta ikusten da portaera absentistek gora egin dutela etapa guztietan eta ikastetxeen titulartasun bietan, eta nabarmenagoa dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan. Hala ere, eskolagabetze kasuen kopuruak behera egin du. Beste alde batetik, behera egiten jarraitzen du arazo honen kasurik larrienen kopuruak, hau da, portaera absentistak ikasturte osoa irauten dueneko kasuenak.

Horrek orok indarra ematen digu benetan lanari gogo osoz ekiteko arazo hori ezabatze aldera. Bestalde, pentsatzen jarraitzen dugu ikastetxera sarritan eta modu iraunkorrean ez joateak nabarmen oztopatzen duela ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa, eta epe luzean horrek baztertzea eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturteetan esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jartzen dute eskola absentismoa beste azaro batzuen “detektagailu” on bezala dabilela, hala nola tratu txarra, berdinen arteko eraso, osasun arazoak... Horrek, bestalde, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aurkitu orduko.

Ikasturte honetan, hamar ikastetxetako zuzendaritza taldeen eta zazpi Udaletako gizarte eta udal zerbitzuen iritzia kontsultatu da I. Eranskinean ageri diren galdetegien bitartez, hainbat gairi buruz, eta zehazki, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeari eta lege hori garatzen duen eta BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duen azaroren 8ko 230/2011 Dekretuari buruz daukaten

ezagutza eta balorazioaren gainean. Emandako erantzunek animoa ematen digute haur eta nerabeen babesean ardura duten erakundeen arteko koordinazioan lan egiten jarraitzeko. Eta absentismoaren arazoa detektatzen denean azkar jardutearen eta erantzuna eragingarria izateko esku-hartze epeak murriztearen beharrezanean lan egiten jarraitzeko ere bai.

Helburu horri ere erantzun nahi zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Diputatuak eta EUDELeko Gizarte Gaien arduradunak, 2003ko apirilean *“Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkaiko lurraldean”* egitasmoa aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek euren gain hartuta.

Helburuen lorpena egiaztatze aldera eta parte hartzen duen Erakunde bakoitzari hobekuntzako jarraibideak eskaini ahal izateko, Programak berak Jarraipen Batzorde bat egotea aurreikusten du. 2011-2012 ikasturteari dagokion txosten honek, Batzorde horrek bere gain hartu dituen eginkizunak betearaztea du helburu.

## 2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa hau abian jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko aldiaren adingabeen hezkuntza eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola absentismoa saihestuz.
- Gizarte esparru behartsuetatik datozen familien jokabidea sustatzea hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenestea hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzeko xede dutenean.
- Gai horren larritasunari buruz sentsibilizatzea parte hartzen duten profesionalak, gizartea oro har eta zeregin horretan zuzenean diharduten pertsonak bereziki.
- Zerikusia duten erakundeek (Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinaturik lan egitea prebentzioan eta eskolagabetzearen eta eskola absentismoaren aurkako esku-hartzean.
- Eskolagabetzearen eta eskola absentismoaren egoera nahiz abian jartzen diren esku-hartzeak ebaluatzea.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete formulatutako helburuei, baina bereziki azpimarratzen da arazoaren hedadura zehaztea; izan ere, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezkeen eta, azken batean, arazoa konpontze aldera.

### 3. DATU BILKETA

#### 3.1. Terminoen definizio operatiboa: eskolagabetzea, eskola absentismoa, absentismo metatua eta absentismo zuzendua

Txosten honetan aurkezten diren datuak interpretatu ahal izateko ageri da eskolagabetze, eskola absentismo, absentismo metatu eta absentismo zuzendu terminoen definizio operatiboa:

- **Eskolagabetzea:** Derrigorrezko eskolatzeko adinean (6-16 urte) egonik Ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoera da. Adingabea kontzeptu horretan sartuta dago matrikulatuta egon arren justifikatu gabeko hutsegiteen %100 duenean.
- **Eskola absentismoa:** Eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera era jarraituan ez joatea justifika dezakeen batera ziorik gabe, familiak berak onartuta edo bultzatuta edo ikaslearen beraren gogoz, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Kontzeptu honen definizio operatiboan, absentismo tasa hilean justifikatu gabeko hutsegiteen portzentaje gisa hartzen da. Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago gisa hartzen da. Absentismo kontzeptua, prebenitzeko eta desberdintasunak konpentsatzeko asmoz, Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinetik aurrera aplikatuko da.
- **Absentismo metatua:** Tarteka jasotzen da ikasle absentisten artean ikasturtean metatutako absentismoaren portzentajea. Hona hemen tarteen esangura:
  - %25: Ikasturtean joan gabeko egunen %25era arte.
  - >%25-%50: Ikasturtean joan gabeko egunen %25 baino gehiagotik %50era arte.
  - >%50-%75: Ikasturtean joan gabeko egunen %50 baino gehiagotik %75era arte.
  - >%75: Ikasturtean joan gabeko egunen %75 baino gehiagotik %99ra arte (hutsegiteen %100 eskolagabetzearen baliokide da).
- **Absentismo zuzendua:** Absentista izan ondoren 2012ko apiril, maiatz eta ekainean gutxienez absentismoko erregistrorik ez izatera igaro diren ikasleen kopuru eta portzentajea jasotzen dira.

#### 3.2. Datuak biltzeko jarraitu den prozedura

Programan ezarritako protokoloa bete da. Hau da, hileko bosgarren eguna baino

lehenago Ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzari eta dagokien Udalari erregistroko orriak bidali behar dizkiete, gorago azalduta dauden terminoen definizio operatiboaren arabera hileroko justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago izan dituzten ikasleen izenekin beteta. Gainera, hiruhileko bakoitza amaitzean, Ikastetxe guztiek (hileko absentismoko erregistrorik izan zein ez) bere ikasle absentisten egoera aztertzen duen sintesi-fitxa bat bidali behar izan diote Hezkuntza Ikuskaritzari, eta horrela hobetu egin da datu bilketaren kontrola.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko Ikuskariak aztertzen ditu eta horretarako sortutako aplikazio informatikoan sartzen dira. Aplikazio hori diseinatu izanari esker jakin izan dugu 2011-2012 ikasturtean absentismo eta/edo eskolagabetze erregistroren bat izan duten Ikastetxe eta ikasleen kopurua.

Azkenik, ikastetxe batzuetako zuzendaritza taldeen eta hainbat Udaletako langile teknikoek iritzia ere jaso da. I. Eranskinean iritzi horiek jasotzeko balio izan duen agiria erantsi da.

#### **4. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAREN**

##### **4.1. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA)**

###### **4.1.1. Portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleen kopuru osoa:**

Absentismo kasuak eta eskolagabetzekoak batuta, 1.602 da kopurua orotara.

Kopuru horrek oinarrizko irakaskuntzako ikasleen %1,6 egiten du. Portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleak aurreko ikasturtean baino 122 gehiago izan dira. Eman den kopuru hori absentismoaren eta eskolagabetzearen erregistroen arteko baturari dagokio. Gorakada etapa bietako absentismo erregistroetan gertatu da, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarenean. Hala ere, behera egin du ikasle eskolagabetuen kopuruak.

Absentismo erregistroen gorakadaren azalpenen artean, kontuan hartu beharko litzateke zerbitzu batzuek eta besteek egiten duten kontrol eta jarraipen hobea. Alde horretatik, ikasturtearen zati handi batean geratzen ez diren erregistroetan gertatu da gorakada. Bestalde, Bizkaiko lurraldean eskolako umeen kopuruak gora egin duela kusi da.

Sexuaren arabera banatuz gero, absentismo eta eskolagabetze arazoak dauzkaten ikasleen datuak honako hauek dira: 729 neska (%45,5) eta 873 mutil (%54,5).




#### 4.1.2. Portaera absentista daukaten ikasleen kopurua

Guztira 1.569 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasunaren eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN HEZKUNTZA			DBH			LEHEN HEZKUNTZA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
30.072	704	2,3	16.625	562	3,4	32.014	112	0,3	19.979	191	%1

Aurreko ikasturteetan bezala, portaera absentista daukaten ikasleen portzentajea handiagoa da argi eta garbi DBH etapan Lehen Hezkuntzan baino. Halaber, Ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira oraindik ere Ikastetxe pribatu itunduetakoak baino, eta arrazoiei buruz azalpena ematen da txosten honen 27. orrialdean.

**Ikasle absentisten banaketa  
sexuaren arabera**




#### 4.1.3. Ikasle eskolagabetuak

33 ikasle daude eskolagabetuta (iazko ikasturtean baino 59 gutxiago), eta honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIBATU ITUNDUAK					
LEHEN HEZKUNTZA			DBH			LEHEN HEZKUNTZA			DBH		
Ikasleak	Eskolagabe.	%	Ikasleak	Eskolagabe.	%	Ikasleak	Eskolagabe.	%	Ikasleak	Eskolagabe.	%
30.072	8	0,03	16.625	18	0,1	32.014	1	0,003	19.979	6	0,03

Taula horietako datuek argi eta garbi portzentaje aldetik aurreko atalean aipatu den desberdintasun bera adierazten dute hezkuntza etapa bien artean eta Ikastetxe batzuen eta besteen artean.



#### 4.1.4. Portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleen kopurua

LEHEN HEZKUNTZA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta eskolagabe.	%	Ikasleak	Absent. eta eskolagabe.	%
62.086	825	1,3	36.604	777	2,1

Berriro ere ikusten da hezkuntza etapen eta absentismo erregistroen gorakadaren arteko diferentzia, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, lehenago azaldu den bezala.

#### 4.1.5. Absentismo metatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

##### 4.1.5.1. Ikastetxe publikoetako ikasle absentistak

LEHEN HEZKUNTZA								
GUZTIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
704	611	(%86,8)	68	(%9,7)	20	(%2,8)	5	(%0,7)

Aurreko taulan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik handiena Ikastetxe publikoetan (%86,8) %25erainoko tartean



kokatzen da.

>%75 tarteko absentisten kopuruari (5) eskolagabetuak gehituz gero, (8), egoera bi horietako portzentajea –arazo honen agerpenik larrienak– %1,8 izango litzateke.

DBH								
GUZTIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
562	430	(%76,5)	92	(%16,4)	31	(%5,5)	9	(%1,6)

DBHn, absentismoaren portzentajerik handiena ere (%76,5) %25erainoko tartean biltzen den arren, Lehen Hezkuntzan ageri dena baino txikiagoa da. Dena dela, absentismorik larrieneko tartetean DBHn Lehen Hezkuntzako etaparen antzeko portzentajeak erregistratzen dira. >%75eko tartean %1,6 da.

Lehenago bezala, azken tarteko ikasle absentisten kopuruari (9) eskolagabetuak gehituz gero, (18), bi egoera horietako portzentajea %4,6ra igoko litzateke.

#### 4.1.5.2. Ikasle absentistak Ikastetxe Pribatu Itunduetan

LEHEN HEZKUNTZA								
GUZTIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
112	102	(%91,1)	7	(%6,2)	3	(%2,7)	0	(%0)

Ikastetxe Pribatu Itunduetan ere ikasleen metaketa bera gertatzen da lehen tartean, hau da, ikasturtean hutsegiteen %25 gainditzen ez dutenena; %91,1era heltzen da hemen.


Era berean >%75 tarteko absentisten kopuruari (kasu honetan ez dago halakorik) ikasle eskolagabetuak (1) metatuko baldin bagenizkio, egoera bi horien portzentajea %1 izango litzateke.

DBH								
GUZTIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
191	130	(%68,1)	42	(%22)	14	(%7,3)	5	(%2,6)

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn ere absentismoaren kontzentrazio txikiagoa ageri da %25eko mailan, hemen %68,1era heltzen dela.

Azken tartean ikasle eskolagabetuak (6) eranstea, bien baturaren portzentajea %5,7 izango litzateke.

**Absentismoaren metaketa %25eko tartean  
sexuaren arabera**




**4.1.6. Absentismo zuzendua**

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHEN HEZKUNTZA Absentisten kop.: 704		DBH Absentisten kop.: 562		LEHEN HEZKUNTZA Absentisten kop.: 112		DBH Absentisten kop.: 191	
Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%
377	%53,6	282	%50,2	67	%59,8	101	%52,9

Aurreko taulako datuek absentista izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: Erakundeek arazo hori gainditzeko egindako esku-hartzeak, edota portaera absentista eragin bide duen egoeraren araberrako inguruabarra desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen dira hainbat zioerengatik egunen %20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabetean bakarrik gertatu arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, ikasturtean zehar portaera absentistari eusten diotenena esku-hartze guztiak gorabehera. Kopuru hori ateratze aldera, aurreko taulako datuak kentzen zaizkie txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei, eta Lehen Hezkuntzako 372 ikaslera heltzen da (%0,6) eta DBHko 370 ikaslera (%1).

### Absentismo zuzenduaren portzentajea sexuaren arabera



#### 4.1.7. Udal Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua

	Bideratutako espedienteen kop.	% (1)	% (2)
Udal Gizarte Zerbitzuak	815 (3)	38,7	0,6
Foru Aldundia	42	2	0,03
Fiskaltza	142	9	0,14

(1) % absentismo eta/edo eskolagabetzeko kasu guztien gainean. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) % derrigorrezko irakaskuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gainean. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.


(3) Ikastetxeek erregistro orrietan emandako informazioa

Kasu guztietan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskola absentismoari buruz bidalitako jakinarazpena jaso ondoren, Fiskaltzak honela jarduten du:

- Argiketa egiteko eskatzea Ertzaintzari, ondorio horretarako egindako protokolo baten arabera.
- Haur eta nerabe absentisten familiei zitazioa ematea.
- Eskolatuta dauden ikastetxeari justifikatu gabeko hutsegiteen hileko erregistroa bidaltzeko eskatzea, jarraipena egiteko.

Arazoak bere horretan irauten duenean, hiruhileko jarraipen hori derrigorrezko eskolatzea amaitu arte mantentzen da, eta hala gertatuz gero, gurasoen aurka salaketa egiteari ekin behar zaio, familiaren abandonua dagoela baloratzen den kasuetan.

**Zerbitzu batzuetara eta besteetara bideratzea  
sexuaren arabera**




**4.2. HAUR HEZKUNTZA**

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
15.924	457	2,8	16.108	44	0,3

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko maila izan ez arren, hasiera-hasieratik egoera horiek identifikatzea garrantzitsua dela uste delako eskolatzea sustatzeko, gizarte alderdian ahulak diren herriguneeen kasuetan batez ere.

**Ikasle absentisten banaketa Haur Hezkuntzaren garaian  
sexuaren arabera**



### 4.3. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN BANAKETA IKUSKARITZAKO ESKUALDEKA

Guztira	Eskuldeak			
	1	2	3	4
130.722 (1)	24.992 (%19,1)	31.120 (%23,8)	43.028 (%32,9)	31.582 (%24,2)
2.103 (2)	50 (%2,4)	113 (%5,4)	1.330 (%63,2)	610 (%29)
<b>Absentismo indizea</b>	(%0,2)	(%0,4)	(%3,1)	(%1,9)

- (1) Guztizko horretan Bizkaiko lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau eskualdeetan banatzen da taulak adierazten duen bezala. 1. eskualdea Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdeari dagokie. 2. eskualdea, Uribe. 3. eskualdea, Bilbo eta Nerbioi Goiena, eta 4. eskualdea, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.
- (2) Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzan portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztizko kopurua da.

Ikus daitekeenez, banaketa hori eskualdeka ez da berdintsua. Aitzitik, batez ere 3. eta 4. eskualdeetan biltzen da.

### 4.4. IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
KOP. OSOA	Kaltetuak	%	KOP. OSOA	Kaltetuak	%
260	144	%55,4	142	51	%35,9

**Portaera absentistarekin eta/edo eskolagabetuta 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak**

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
KOP. OSOA	Kaltetuak	%	KOP. OSOA	Kaltetuak	%
260	52	%20	142	11	%7,7

Bigarren taula honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoaren kaltea duten Ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo taulan islatzen dira erregistroren bat izan duten Ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

#### 4.5. DATUEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

IKAS TURTEAK	ABSENT+ESKOLAGAB. OINAR. HEZK.	ABSENTISMOA HAUR HEZK.	IKAST. KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZARA BIDERATUAK
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUND.	
2003-2004	1.074 (%1,2)	201 (%0,76)	38 (%15,1)	6 (%4,4)	8 (%0,63)
2004-2005	1.133 (%1,3)	197 (%0,72)	39 (%15,5)	5 (%3,6)	28 (%2,5)
2005-2006	1.135 (%1,3)	257 (%0,91)	41 (%16,3)	5 (%3,6)	29 (%2,5)
2006-2007	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2007-2008	1.405 (%1,5)	300 (%0,99)	50 (%19,8)	14 (%10,2)	41 (%2,9)
2008-2009	1.319 (%1,4)	330 (%1,06)	54 (%21,1)	14 (%9,9)	52 (%3,9)
2009-2010	1.475 (%1,5)	328 (%1,04)	52 (%20,3)	10 (%7,1)	59 (%4)
2010-2011	1.484 (%1,5)	445 (%1,4)	50 (%19,5)	11 (%7,8)	65 (%4,4)
2011-2012	1.602 (%1,6)	501 (%1,6)	52 (%20)	11 (%7,7)	141 (%9)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen bilakaera jarraipen horretan jardun izan duten bederatzi ikasturteetan. Harrigarria izan daiteke datuak larriagotu izana iruditzea absentismoaren jarraipeneko asmo honek aurrera egin ahala, baina zerean datza azalpena nonbait: kontrol tresna ere hobetu egin da apurka-apurka. Aurreko ikasturteetan ikastetxe guztiek hiruhileko sintesi-fitxa bete zezatela lortu zen, eta horri esker sakonago dakigu arazoaren errealitatea. Hain zuzen ere, antza denez absentismo kasuak areagotu egin direla.

Absentismo zuzenduari dagokionez, esan behar da hurrengo taula horrek bilakaera osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHEN HEZKUNTZA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHEN HEZKUNTZA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	%42	%49	%57	%44
2005-2006	%42,4	%44	%52,5	%34,6
2006-2007	%63,4	%55,1	%67,5	%59,4
2007-2008	%47,1	%48	%48,4	%39
2008-2009	%44,1	%43,8	%65,1	%46
2009-2010	%46,6	%41,8	%43	%45,2
2010-2011	%49,5	%53,4	%70,2	%49,6
2011-2012	%53,6	%50,2	%59,8	%52,9

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturteon Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetan eta DBHn ikastetxe pribatuetan zuzendu diren kasuen portzentajea aurrekoan baino handiagoa da.

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren bilakaera jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko eskola-egunen %75ean baino gehiagoan joaten ez diren ikasleen portzentajea jasotzen du, eskolagabetuekin batera), informazio hau jaso den zotzi ikasturteetan.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK	
	LEHEN HEZKUNTZA %75 eta %100 bitarteko absentismoa	DBH %75 eta %100 bitarteko absentismoa	LEHEN HEZKUNTZA %75 eta %100 bitarteko absentismoa	DBH %75 eta %100 bitarteko absentismoa
2004-2005	%6,5	%17,1	%6,8	%24,6
2005-2006	%6,6	%19	%15,6	%15,5
2006-2007	%4,9	%10,5	%1,3	%5,9
2007-2008	%2,9	%9,5	%3,2	%14,2
2008-2009	%7,4	%12,6	%4,5	%11,7
2009-2010	%2,7	%10,3	%3,1	%12,8
2010-2011	%2,6	%9,1	%2,3	%15,9
2011-2012	%1,6	%4,6	%1	%5,7

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larriena (ia ikasturte osoan irauten duenean) ikasturteon nabarmen murriztu egin dela, aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Horregatik berresten dugu, aurreko ikasturteetan bezala, arazo horren dimentsioa, txikia izanik hezkuntza sistemaren ikuspuntutik, ez dela hala norbanakoaren ikuspuntutik, eskola porrota eragiten duen egoera hori baita pertsona horien geroko bazterketa sozialaren arrazoietakoa bat. Arrazoi horregatik, txosten honetan, aurrekoetan bezala, J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako Txostenean ageri dena:

*“Herri askok, batez ere herri garatuetan, gaur egun hezkuntza politiketarako oso harigarria den fenomeno jasaten dute: eskolatze-aldia luzatzean paradoxa da gizartearen abulena diren edo eskola-porrota jasaten duten gazteen egoera hobetu ez, baizik eta larriagotzea. Munduko hezkuntza arloko gasturik handienak dituzten herrietan ere, eskolako porrotak eta bertan behera uzteak ikasle askori eragiten diete. Gazteen kategoria biren arteko zatiketa sortzen da, are zatiketa larriagoa, lan arloan irauten duela kontuan hartuta. (...) Bazterkeria sortzen duen aldetik, eskolako porrota kasu askotan indarkeria molde batzuen edo norbanakoen galbideen sorburua da. Gizartearen ehuna urratzen duten prozesu horien ondorioz, eskolari gizarte bazterkeriaren eragile izatea leporatzen zaio eta aldi berean eskolari integratzaile edo berrintegratzaileko funtzioak*

*erakunde gisa dei egiten zaio. Hezkuntza politikei planteatzen zaizkion arazoak bereziki zailak dira; eskolako porrotaren aurkako borroka, beraz, gizarte-agindua izan behar du” (61. or.).*

Gainera hainbat ikerketatan jasotzen da arazo hau; izan ere, eskolagabetearen ondorioak gaur egun serioagoak dira enplegu osoko garaian baino. M. Esterle Hedibelen (2005) “Absentismoaren eta eskolagabetearen prebentzioa eta tratamendua Frantzia: esperientziak eta jardunbide berriak” artikuluan baieztatzen denez, “*enplegu bat betetzeko eskatzen den trebakuntza maila gaur egun handiagoa da, eta eskola-sistema titulurik gabe eta/edo 16 urte bete baino lehen uzten duten ikasleen gizarte eta lanbide arloko iguripenak askoz txikiagoak dira*”.

“Eskola absentismoa hezkuntzaren kalitaterako erronka gisa” izeneko hezkuntza-ikerketako lanak –J. Rué, M. Amela eta M. Buscarons-ek egina (2003)– ondorioztatzen du ikerketa horrek errealitate konplexu baten aurrean jarri dituela. Errealitate horrek ikasle zehatz batzuekiko mugak agertu ditu, baina horrez gain, beste bide batzuk ere erakutsi ditu irakaskuntzan jarduteko eta derrigorrezko hezkuntzako erabiltzaile guztiei kalitate bermeak eskaintzeko. Horrek pentsamolde aldaketa dakar: eskolatzeko berria hartu behar dugu kontuan gehiago, azaleratzen diren egoera pertsonal berezi edo espezifikoei –ikasle absentistek, adibidez– laguntza ematea baino. Ikasle horiek, eurentzat izan arren bere eginkizuna aintzat hartu ezin duten edo, are txarrago, zuzenean gaitzesten duten erakunde baten aurkako hainbat erronka mota agertzen duten sektorea dira.

M<sup>a</sup> Teresa González Gonzálezen “Absentismoa eta eskola bertan behera uztea: hezkuntzako bazterkeriaren egoera berezia” artikuluan (2006), absentismoaren arazoari heltzen zaio, eta ikaslearen gaineko foku bakarretik (famili ezaugarriak, bizi den komunitatearenak, bereizgarri pertsonalak, portaera akademikoak...) eskola-antolakuntzaren eta hezkuntza politiken fokura igarotzen da, eta zera dio ondorio gisa:

- Absentismoa eta bertan behera uztea saihesteko jarduketa oro eraginkorra izateko, ikastetxeko kide guztiak ados egon behar dira honako honetan: bertaratzea hobetzeko, aldaketa esanguratsuak egin behar dira ikasketako giroen kalitatea hobetze aldera.
- Garatzen diren estrategia eta planen abiapuntua honako hau izan behar da: ikastetxeak azterketa egin behar du, eta ulertu egin behar du zergatik ez doazen ikasleak eskolara, zergatik deskonektatzen diren curriculumetik, zergatik ez zaizkion lotzen lan akademikoari, ezta gizarteari ere... Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein neurritan eragiten duten egiturek beraiek, eskaintzen diren curriculumek eta gelako irakaskuntzek, inguruarekiko harremanek eta ikastetxearen funtzionamendua egituratzen duten usteek bertaratze eta bertan behera uzte arazoetan.

Europar Batasuneko INCLUD-ED Ikerketako Esparru Programen barruan, A. Flecha, R. García, A. Gómez eta A. Torreren (2009) “Eskola arrakastatsuetan parte hartzea: ikerketa komunikatiboa” artikuluan ageri denez, eskolaren eta familiaren arteko harremanean oinarritzen diren ikerketek frogatu egin dute familien eta komunitatearen partaidetzak areagotu egiten duela gutxiengo kulturei dagozkien edo minusbaliotasuna daukaten ikasleen errendimendua (Caspe, López eta Wolos, 2007; Dearing, Kreider, Simkins eta Weiss, 2006; Driessen, Smith eta Slegers, 2005; Hess,



Molina eta Kozleski, 2006; Merry, 2005). Nazioarteko komunitate zientifikoak jada ezagutzen dituen ekarpen horiek, hezkuntzaren arrakastarekin lotzen diren parte-hartze motak zeintzuk diren jakiteko sakontzea eskatzen zuten. Includ-ed proiektuaren emaitzek, komunitateak ikastetxeetan parte hartzeko molde batzuen sailkapena ekarri zuten: informatiboa, aholku-emailea, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Argi eta garbi ikusi da familien eta komunitatearen parte-hartzeko jokabide jakin batzuek lotura daukatela maila sozioekonomiko txikiko eta gutxiengo taldeetako ikasleen arrakastarekin: familien prestakuntza, komunitatearen esku-hartzea erabakia hartzeko prozesuetan eta parte-hartzea curriculumaren garapenean eta ebaluazioan.

2009ko azaroko “Mundu aldakor baterako funtsezko gaitasunak” izeneko agiriak (Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzorde zientifiko eta sozial europarrari eta Eskualdeen batzordeari), hauxe dio: *“Metodo berritzaileak, adibidez ikasketa-programa pertsonalizatuak eta esperimentazioan oinarritutako ikasketa, bereziki erabilgarriak izan daitezke eskolako esperientzia negatiboak edo porrotez beteak jasan dituztenentzat”*.

Carlos Ferreirós fiskalak derrigorrezko irakaskuntzari eta Fiskaltzak egin ahal duen esku-hartzeari buruz egindako azterlan luze eta zorrotzean azpimarratu egiten da herri garatuetako haurren babeserako xedapenen eraldaketaren ardatza, hain zuzen ere haurrak eta nerabeak *eskubidedun* subjektu gisa kontuan hartzea. Bertatik sortzen da babesekeko espedienteak eraentzen dituen funtsezko printzipioa, “adingabearen interesa”. Printzipio horrek gidatu behar du botere publikoek adingabeen eskubidea – kasu honetan hezkuntzarako eskubidea– jardunbide desegokien aurka babesteko egin beharreko esku-hartzea, jardunbide horiek familiek ontzat eman arren.

Azkenik, Europar Batasunaren 2020. urterako helburuetako bat da eskola uztearen portzentajeak %10 baino gutxiago izan beharra, eta belaunaldirik gazteenaren %40k gutxienez goi mailako ikasketa osoak eduki beharra. Kontuan hartzen badugu “eskola uztea” terminoarekin Derrigorrezko Irakaskuntza bukatu ostean beste ikasketarik egiten ez duten gazteen portzentajea adierazten dela, arazoa askoz larriagoa da absentisten kasuan; izan ere, horiek, arazoak iraunez gero, ez lukete Oinarrizko Irakaskuntza ere amaituko.

## **5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA: ZUZENDARITZA TALDEEN ETA GIZARTE ETA UDAL ZERBITZUEN EKARPENAK**

Aurtengo ikasturtean, txosten honetan euren ekarpenak agertzeko helburuz, hamar ikastetxetako zuzendaritza taldeen eta zazpi udaletako nahiz bi mankomunitatetako udal edo gizarte zerbitzuen iritzia bildu da, I. Eranskineko galderak jasotzen dituzten galdetegi batzuen bitartez. Jarraian doa azaldutako iritzien sintesi adierazgarria.

### **5.1. Galdetegia jaso duten zuzendaritza taldeen iritzia**

Honako ikastetxe hauetako zuzendaritza taldeei kontsultatu zitzaien:

Ikastetxeak	Udalerrria
Larrea HLHI	Amorebieta
Artaste HLHI	Bilbo
Francisco de Goya-Lope de Vega HLHI	Bilbo
Miribilla HLHI	Bilbo
Andra Mari HLHI	Getxo
Txurdinaga-Artabe BHI	Bilbo
Martín de Bertendona BHI	Bilbo
Kantauri BHI	Santurtzi
Otxarkoaga BHIP	Bilbo
Astileku Ikastola HLBHIP	Portugalete

Jarraian laburtuta ageri dira aurkeztutako galdetegiari emandako erantzunak:

Galderak	Erantzunak	
	Bai	Ez
1.- Ezagutzen al duzu otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Haur eta Nerabeak zaindu eta babesteko Euskadin? Eta ba al dakizu zelan eragiten dion adingabeekin batera daramazun lanari?	6 (%60)	4 (%40)
2.- Ezagutzen al duzu BALORA tresna (haurtzaro eta nerabezaroan arrisku eta babesgabatasuneko egoeren larritasuna balioesteko tresna)?	5 (%50)	5 (%50)
3.- Zer-nolako ekarpen edo hobekuntzak ekarri dizkio zure eguneroko lanari?	<p>Bost ikastetxek erantzun dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio bilketa sistematizatzen laguntzen du. Jarraitu beharreko bidea markatzen du.</li> <li>- Argitasun handiagoa ematen du, bai Gizarte Zerbitzuetara bideratu beharreko ikasleen tipologiari buruz, bai zerbitzu horien esku-hartzeari buruz.</li> <li>- Adierazle garrantzitsuak zein diren eta adierazleok zein larritasun duten zehazteko eta erantzukizunak argitzeko balio du.</li> <li>- Orain arte oso argi ez zeuden haurtzaroko arrisku-egoeren definizio eta sailkapena eskaintzen du. Prozedura ere oso ondo zehaztuta ageri da hainbat gauza jakiteko: datu bilketa nola hasi, esku hartzen duten zerbitzuak eta baliabideak zein diren...</li> <li>- Ikastetxeetako batek uste du ez duela inolako hobekuntzarik ekarri, aspalditik beste estamentu batzuekin lanean ari direlako babesgabezia eta absentismo egoerak konpontzeko</li> </ul>	
4.- Zure iritziz, zein alderditan eragin diezaiokete gailuak gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeen arteko harremanari hobetze aldera?  Eta haurren babesik ezari ekiteko?  Eta eskola-absentismoan, bereziki?	<p>Bost ikastetxek erantzun dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza eman dezake erakunde bakoitzaren zeregina zein den jakiteko. Komunikaziorako bideak ezartzeko ere bai.</li> <li>- Bideratu beharreko kasuak argitzen ditu. Gainera, Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea nolakoa den jakiteak ikastetxeen eta zerbitzu horien arteko koordinazioa hobetzen laguntzen du.</li> <li>- Ikastetxeari bere oharrak ordenatzen laguntzen dio. Gainera, baterako lengoia ezartzen eta egoeren garrantzia edo larritasuna irizpide nahiko objektibo batzuen arabera baloratzen laguntzen du; horrela, subjektibotasuna mugatzen da balorazio profesionaletan. Gauzak argitzen ditu, baina tresnak ez ditu saihesten funtsezko bi arazoak: 1).- Ikastetxeek ez ematea detektatzen dituzten arrisku egoeren berri, beldurratik eta 2).- Gizarte Zerbitzuek ez dutela benetako mekanismorik familia batek esku-hartze prebentibo edo</li> </ul>	

	<p>aringarria onar dezala lortzeko. Hainbat neurri dago lege arloan (Kode Zibila, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa, Haurrak babesteko Legea... baina ez betetzeen ondorioak aplikatzerakoan zalantza handiak daude erakundeen aldetik.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- BALORA tresnaren bitartez baliteke hobeto definitzea babesgabetasun eta abusu egoerak... baita esku-hartzea egin behar duen zerbitzua ere.</li> <li>- Ikastetxe batek baloratu du gizarte zerbitzuekiko harremana oso ona dela aspalditik, eta beraz ez dela ezer ere hobetu behar.</li> </ul>
5.- Zer zailtasun duzu absentismo egoerak Udaleko Gizarte-Zerbitzuetara bideratzeko?	<p>Ikastetxe guztiek erantzun dute ez dutela zailtasunik. Hauek dira egin dituzten ekarpenetako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zailtasunak gehienbat familiei dagokienez ageri dira, jakinaren gainean egon eta udal zerbitzuei egoeraren berri emango zaiela abisatuta egon arren, errua tutoreci leporatzen dietelako eta horrela harremana hondatzen delako.</li> <li>- Bilboko Udalean bideratzeko dagoen bide bikoitzak disfuntzioak sortzen dituela uste da: 1) gizarte zerbitzuetarantz, babes mekanismoa diren aldetik eta 2) Hezkuntza arlorantz, eskola bitartekotzak langileen bitartez. Beren ustez, argiago litzateke gizarte zerbitzuen bitartez egitea, zerbitzu horiek bateratu beharko bailituzkete informazioa eta zailtasunak dauzkaten familiekiko jarduketak.</li> <li>- Ikastetxeetako batek uste du Aldundiko zerbitzuekiko harremana ez dela erraza. Adierazi dutenez, ikastetxeak beti dei egin behar izaten die eta informazioa nahiz koordinazioa lortzeko eragozpenak izaten dituzte. Uste dute talde-lana oinarritzko baldintza dela.</li> </ul>
6.- Absentismo egoerez gain, gainerako babesik ez egoerak bideratzea errazten al dizu?	- Orokorrean, ikastetxe guztiek uste dute erraztu egiten duela.
7.- Zelan balioesten duzu koordinazioa Oinarritzko Gizarte-Zerbitzuekin? Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?	<p>Orokorrean uste da ona edo oso ona dela (azken balorazio hori hiru zentzoren kasuan eman da). Honako gogoeta hauek jaso dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinazioa on gisa baloratzen da, baina lankidetzan aritzeko elkarrenganako gogoia kontuan hartuta. Gizarte zerbitzuekin baino gehiago, zerbitzu horretako pertsonekin da.</li> <li>- Ikastetxeetan arrisku adierazleak detektatzen dira, baina batzuetan ikastetxeak informazio alderatuaren iturri bakarra dira. Beste alde batetik, koordinazioa ezin da utzi pertsonen borondatearen mende. Beste zeregin bat izan behar da, aintzatesia, administrazioek antolatua eta zeregin hori egin ahal izateko antolaketa zehatz bat ezarrita: denborak, aldizkakotasuna, edukien kontrola...</li> <li>- Kasu batzuetan, ezarritako koordinazioaren balorazio hobezina azaltzen da.</li> </ul>
8.- Zehatzago, Hezkuntzarako Eskubidea Bizkaian bermatzeko Programari dagokionez:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beharrezko al deritzozu Programa aldatzeari?</li> <li>- Zein aldaketa proposatuko zenuke sartzeko?</li> </ul>	<p>Erantzun duten bederlatzi ikastetxetatik, zortzik, (%88,9) ez dute uste moldatu behar denik, batek bai (%11,1). Honako gogoeta hau jaso da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Argi ikusten dena zera da: zenbat eta lehenago esku hartu, arriskua oraindik arina-moderatua denean, hainbat eta aukera gehiago arrakasta izateko. Esperientziak dioena da familia batzuen kasuan egoera kroniko bilakatu dela eta absentismoaren arazoa anai-arreba gazteagoetan ere agertzen dela.</li> </ul> <p>Lau ikastetxek honako proposamenetako bat egin dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Sailak trabarik ez jartzea errolatzea dela-eta, Erkidegora iritsi berri diren pertsonen kasuan.</li> <li>- Programan lana errazteaz arduratzen diren enpresak profesionalagoak izan daitezela.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Uste al duzu Gizarte- eta Hezkuntza-Txostena aldatu behar litzatekeela, Programan ezarria dagoena?</li> <li>- Zer kenduko zenuke, eta zer gaineratuko?</li> <li>- Zer zailtasun topatzen duzu aplikatu edo interpretatzeko?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esku hartzeko denborak laburtzea.</li> <li>- Familiekin harremanetan jartzeko zeregina ikastetxeetan hasi behar da: konbentzitzea, jarraipena, lege arloko ohartarazpenak... Dena dela, absentismoak irauten badu, neurri zehatzak, kaltetuek ikusteko modukoak hartu behar dira. Beste alde batetik, epeak oso luzeak dira eta Programa osoa ahultzen dute.</li> </ul> <p>Erantzun duten bederatzi ikastetxeetatik, zortzik, (%88,9) ez dute uste moldatu behar denik. Batek uste du beharbada galderaren bat eta formatua bera aldatu behar direla. Honako gogoeta hau egin da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Konplexua da, eskatzen duen datu-kopuruarengatik, baina absentismoaz gain hauraren edo nerabearen babesgabetasun handiagoa dagoela adieraz dezakeen beste arazorik dagoen ikusten laguntzen du.</li> </ul> <p>Hiru ikastetxek honako hau erantzun dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza bateratuagoa absentismoaren lanean, Bilboko barruti diferentetako enpresa diferenteen lanak erraztu egiten ez duena.</li> <li>- DBHko etapan eskoletara inolako materialik gabe joaten diren ikasleak gehitu beharko lirateke. Egoera hori, justifikatu gabeko hutsegite gisa baloratu beharko litzateke. Ikasle batzuk, absentismo-partean agertzeari buruzko abisua edukita, eskolara joaten dira baina argi eta garbi ezer ere ez egiteko asmoarekin.</li> <li>- Familiari buruzko gauza guztiak. Zaila da lanaren edo etxebizitzaren egoerari edo familiako harreman eta antolakuntzari buruzko informazioa jakitea, ikasleen bidez ikusten denaz harago.</li> </ul> <p>Ikastetxe batek ere ez du uste (%0) arazorik dagoenik aplikatu edo interpretatzeko.</p>
---	--

## 5.2. Gizarte eta udal zerbitzuen iritzia

Honako udalerrri hauetako gizarte edo udal zerbitzuei kontsultatu zitzaien:

Udalerrria edo Mankomunitatea
Barakaldo
Basauri
Bermeo
Bilbo
Getxo
Portugalete
Santurtzi

Jarraian laburtuta ageri dira aurkeztutako galdetegiari emandako erantzunak:

Galderak	Erantzunak
<p>Haur eta Nerabeak Euskadin lagundu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea eta BALORA tresna (hautzaro eta nerabezaroan arrisku eta babesgabetasuneko larritasuna balioesteko tresna) onartzen duen 230/2011 Dekretua argitaratu ostean,</p> <p>1.- Zer-nolako ekarpen edo hobekuntzak ekarri dizkio BALORAK zure eguneroko lanari?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa biltzean sistematizazioa ahalbidetzen du, adingabea zein arrisku-mailatan dagoen azaltzen duten adierazleak ezarriz.</li> <li>- Babesgabetasun egoerak detektatu eta baloratzeko adierazleak irizpideak bateratzen eta argitzen ditu.</li> <li>- Baloratzeko prozesua arintzen du eta lurraldeko eta tokiko esparruen arteko koordinazio hobea sustatzen du.</li> <li>- Beharrezkoa den lan tresna babesgabetasun egoeran dauden edo hori jasateko arriskua duten adingabeekin esku hartzeko, pertsona adingabearen eta familiaren egoera baloratzen baitu, laneko plan indibidualizatua modu zorrotzagoan egin ahal izateko.</li> <li>- Pertsona adingabea egon daitekeen babesgabetasun egoeren sailkapen zehaztua sortzen du, egoera bakoitzaren berariazko adierazleekin eta esparru horretan administrazio publiko bakoitzarentzako eskumenak ezarriz. Halaber, adingabearen arrisku egoera zehazten eta definitzen laguntzen du.</li> </ul>
<p>2.- Zer zailtasun topatzen duzu aplikatzean?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzuetan tresna konplexua eta zurrungia da; babesgabetasuntzat jo daitezkeen beste egoera jakin batzuk ez ditu kontuan hartzen; zerbitzu bakar batek balorazio bakarra egin beharko luke, baita horren ondoriozko esku-hartzea ere.</li> <li>- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan normalean ez dagoen lanbide anitzeko taldea eskatzen du (batez ere kalte emozionala baloratu behar denean); ez da oso malgua irizpide profesionalerako aukerarik ematen ez duen heinean; eta lana gehitzea ekartzen du, denborari eta sakontasunari dagokienez.</li> <li>- Egoera jakin batzuk larritasun mailan kokatzeko zailtasuna; egituraren konplexutasuna (dimentsio anitzak eta berariazko terminologia).</li> <li>- Ez da tresna bizkorra.</li> <li>- Ez dago salbuespenik eta ez da kontuan hartzen errepikapena arriskuaren maila handitzeko; eta egoerak oso larria izan behar du kasua zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.</li> </ul>
<p>3.- Zure iritziz, zein alderditan eragin diezaiotke gailuak gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeen arteko harremanari hobetze aldera, haurren babesik ezari ekiteko?</p> <p>Eta eskola-absentismoan, bereziki?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleak adingabeengan detektatzen diren arrisku-eragileen berri emateko betebeharrari buruz kontzientziatzeko balio ahal du.</li> <li>- Egoera batean gizarte zerbitzuek noiz esku hartu behar duten argitzen lagunduko luke, eta ondorioz, bideratzen ere lagunduko luke (kasuak baloratu, bideratu eta koordinatu).</li> <li>- Irizpide berberak erabiltzean, egoera jakin baten aurrean interpretazio diferentek saihestuko ditu.</li> <li>- Absentismoa babesgabetasun arrisku egoera gisa tipifikatu da.</li> <li>- Tresnak absentismoko berariazko portzentajeak ezartzen ditu</li> </ul>

	<p>arrisku egoeren larritasuna zehazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestakuntza-premieko arduragabekeriaren barruan kokatzen du.</li> </ul>
4.- Zer hobekuntza sartzen du lurralde zerbitzu espezializatuarekin dagoen harremanean?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irizpide orokorrak ezartzen ditu, bideratzeko eta koordinatzeko prozesua argitzen du eta denborak markatzen ditu.</li> <li>- Erakundeen eskumena mugatzean, eskumenen gatazka murrizten da.</li> <li>- Irizpideak bateratzen ditu.</li> <li>- Egoera baten larritasun mailari buruzko adostasuna errazten du.</li> </ul>
5.- Zelan balioesten duzu koordinazioa Ikastetxeekin?  Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasu askotan, ikastetxeekiko koordinazioa egokia eta erraza izaten da. Sumatzen da koordinazio ona edo txarra ez dagoela hainbeste ikastetxearen edo Gizarte Zerbitzuen mendean, profesional jakin batzuen mendean baizik.</li> <li>- Desberdintasun handia, konplexutasuna, batzuetan ikastetxeak koordinazioaren aurkakoak dira.</li> <li>- Ikastetxeen eta profesionalen mendean dago, baina orokorrean ez da nahikoa, protokoloari eta txostenari buruz ezjakintasun handia dago. Absentismo egoerak kroniko bihurtu direnean edo babesgabetasuneko egoerak larriegiak direnean jakinarazteko joera dago, eta hala prebentzio lana egin ahal izatea eragozten da.</li> <li>- Ezjakintasuna eta koordinaziorik eza are larriagoak dira ikastetxe pribatu/itunduekin.</li> <li>- Adingabeak babesten dituzten agenteak direla, eta alde horretatik betebeharrak dauzkatela, horren ezjakintasuna eta/edo kontzientziarik eza; gizarte zerbitzuei jakinarazteko beldurra edo erreparoak.</li> <li>- Informazioa norabide bikoitzean emateko beharrezana (ikastetxea – gizarte zerbitzuak)</li> <li>- Ikastetxeak detekziorako agente gisa duen sentsazioa areagotzea (baterako erantzukizunari buruzko kontzientzia hartzea).</li> <li>- Programa ezagutu eta betetzea.</li> <li>- Irakasleak eta gainerako langileak kontzientziaztea esku-hartze goiztiararen eta denbora aldetik koordinatuaren garrantziari buruz.</li> <li>- Erakunde bien artean komunikaziorako bide arinagoa, aldian aldikoa eta zuzena ezartzea</li> </ul>
6.- Zelan balioesten duzu koordinazioa Lurralde Zerbitzuarekin?  Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orokorrean, Gizarte Zerbitzu espezializatuarekiko koordinazioa ona eta arina da.</li> <li>- BALORA tresnari esker balorazio irizpideak bateratzen dira; hortaz, pentsa daiteke erakundeen arteko desadostasunak murriztuko direla.</li> <li>- Hobetzekoa da, askotan kasua bere gain hartzen duten langileen mendean dagoelako; unean unekoa, aldizkakotasunik gabe, langile teknikoaren irizpideen eta/edo gogoaren mendean.</li> <li>- Zerbitzu bien arteko bilerak beharko lirake.</li> <li>- Bideratutako kasuetan Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei ez zaie ezer itzultzen beren balorazioaren/esku-hartzearen trukean.</li> <li>- Egoerak muturreraino heltzen diren kasuetan baterako esku-hartzea indartzea.</li> <li>- Prozesua arintzea.</li> <li>- Koordinazioa gehienbat ikuspegi horizontaletik egin beharko litzateke, eta ez ikuspegi bertikaletik.</li> <li>- Norabide bakarrek erabakiak saihestea.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankidetzeta-protokolo bat beharko litzateke, erakunde bien artean komunikazio arinagoa eta aldian aldikoa ezarrita.</li> </ul>
<p>7.- Zer zailtasun ikusten duzu ikastetxeei erantzuna emateko orduan bideratzen dizkizueten babesik ez egoeren aurrean?</p> <p>Eta, zehatzago, absentismo egoerak bideratzeari buruz?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte zerbitzuekin egindako esku-hartzeetan familien laguntzarik eza.</li> <li>- Ikastetxeek eta gizarte zerbitzuek familien emaitza eta aldaketei buruz duten pertzepzio diferentea.</li> <li>- Bideratzen diren kasuen ebazpenari buruz dauden iguripen handiak.</li> <li>- Denbora: esku-hartzeek denbora eskatzen dute helburuak lortzeko, emaitzarik onenak lan prebentiboarekin lortzen dira, horregatik da garrantzitsua ikastetxeetan detektatzea eta gizarte zerbitzuetara azkar bideratzea.</li> <li>- Kasuari buruz sekretu profesionala urratu gabe eta familiari edo adingabeari kalte egin gabe zein informazio eman behar den erabakitzearen zailtasuna.</li> <li>- Ikastetxe batzuen ustez, bideratzeko nahikoa da absentismoari buruzko hileko parte bidaltzea, gizarte eta hezkuntza arloko txostena beharrezkoa denean.</li> <li>- Batzuetan, familiari jakinaraztean ere ez da protokoloa betetzen.</li> <li>- Absentismo parteak bidaltzea, adingabearen talde teknikoa eta adina edozein direla ere.</li> <li>- Absentismoogatiko kasuak arinago bideratu beharko lirateke, arazoa larriagotu baino lehen.</li> <li>- Protokoloan ezarrita dagoen gutzia aktibatzea.</li> <li>- Esku hartzeko eta ikastetxeei erantzuteko denborak.</li> <li>- Gizarte eta hezkuntza arloko txostenaren eredu, ez da arina.</li> </ul>
<p>8.- Zer zailtasun ikusten duzu heziketa premien aurreko axolagabekeria egoerak Bizkaiko Foru Aldundira bideratzeko orduan?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehen kasu horiek ez ziren onartzen, BALORArekin gauza aldatu egingo da.</li> <li>- Absentismoa berez oso gutxitan kontuan hartzen den adierazlea da, eta Aldundiari bideratzeko beste adierazle batzuekin erlazionatuta soilik hartzen da kontuan.</li> <li>- Zerbitzu espezializatuaren esku-hartzea (Aldundia) sarritan pizgarria da gurasoek parte hartzen has daitezen; beraz, zerbitzu bien arteko baterako lana oso garrantzitsua da.</li> </ul>
<p>9.- Zehatzago, Hezkuntzarako Eskubidea Bizkaian bermatzeko Programari dagokionez,</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beharrezko al deritzozu Programa aldatzeari?</li> <li>- Zein aldaketa proposatuko zenuke sartzeko?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bai</li> <li>- Abian jartzeko modua hobetu behar da.</li> <li>- Programa berria BALORARI egokitzea</li> <li>- Berrerortzeetarako prozedura ezartzea.</li> <li>- Hezkuntza Ordezkaritzak eta Fiskaltzak egiten dituzten jarduketan ezagutza hobea.</li> <li>- Fiskaltzara bideratu baino lehenagoko tarteko neurriak: Eusko Jaurlaritzak familiekin esku hartzea, bete beharreko obligazioez ez arduratzeagatik neurri “konpontzaileak” hartzea.</li> <li>- Baloratzeko eta esku hartzeko epeak aldatzea.</li> <li>- Ikastetxe bakoitzean erreferentziako pertsona bat izendatzea tutoreei familiekiko lanean eta protokoloaren aplikazioan lagun diezaion.</li> <li>- Informazioa komunikatu eta eskualdatzeko sistema aldatzea.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Uste al duzu Gizarte- eta Hezkuntza-Txostena aldatu behar litzatekeela, Programan ezarria dagoena?</li> <li>- Zer kenduko zenuke, eta zer gaineratuko?</li> <li>- Zer zailtasun topatzen duzu aplikatu edo interpretatzeko?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalerrri batek izan ezik, gainerakoek uste dute BAI, aldatu beharko litzatekeela.</li> <li>- 2 agiri egitea: bat ikastetxearena, bideratzeari buruz, bestea Oinarritzko Gizarte Zerbitzuarena, erantzuteko.</li> <li>- Absentismoaren hileko portzentajeak eta familiak absentismoa justifikatzea duen motibazioa azalduko dituen atal bat gehitzea.</li> <li>- 14tik 18ra bitarteko puntuak kentzea, arlo horiek Gizarte Zerbitzuen txosten sozialari dagozkiolako eta ez hezkuntza arloari.</li> <li>- Bat ere ez.</li> <li>- Absentismo arazoak dituzten familietan gertatutako aldaketei buruz arazoan esku hartzen duten profesional batzuek eta besteek daukaten pertzepzio diferentea, horren ondorioz Protokoloa modu batean edo bestean aplikatzen baita.</li> <li>- Informazioa bide telematikoak erabiliz eskualdatu ahal da arintasuna handiagoa izan dadin.</li> <li>- Gizarte Zerbitzuek bete beharreko atala handitzea.</li> <li>- Ikastetxeek atal asko bete gabe uzten dituzte.</li> <li>- Ikastetxe bakoitzean, txostena egiteaz pertsona diferente bat arduratzen da (tutorea, orientatzailea...). Horren ondorioz, batzuetan pertsona baten ikusmoldea eta bestearena diferenteak dira, eta txostenak ez du beti agertzen adingabearen benetako egoera.</li> </ul>
---	--

## 6. ONDORIOAK-SINTESIA

- Ikastetxera sarri ez joateak neurri handi batean ikaslearen garapen pertsonal, sozial eta akademikoa eragozten du, eta horrela epe luzean gizarte bazterkeriako egoerak sortzen dira. Gainera, bederatzi urteotan jasotako datuek, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jarri dute eskola absentismoa beste arazo batzuen “detektagailu” on gisa dabilela: tratu txarra, berdinen arteko erasoak, osasun arazoak..., besteak beste.
- Prozedura estatistiko bat erabili ez bada ere sexuaren arabera eskaintako datuetan diferentzia adierazgarriak dagoen ala ez baloratu ahal izateko, eskaintzen diren kopuru absolutuek zalantzan jartzen dute aurreko ikasturtean baieztatu genuena, hau da, arazoa aldagai horrekin lotuta ez dagoela.
- Ikastetxeetako langileen ekarpenei dagokienez honako ondorio hauek jasotzen dira:
  - Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen %60k dio Haurrak eta Nerabeak Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legea ezagutzen duela eta horrek bere eskolako lanean izan ditzakeen ondorioen berri duela.



- %50ek dio Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak babestu eta artatzeko udaleko nahiz lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku egoeren larritasuna baloratzeko tresna (BALORA) ezagutzen duela.
- BALORA tresna ezagutzen dutenen iritziz, tresna horrek baterako lengoia ezartzen eta egoeren garrantzia edo larritasuna irizpide nahiko objektibo batzuen arabera baloratzen laguntzen du; horrela, profesional batzuen eta besteen balorazioen subjektibotasuna mugatzen da.
- Gizarte eta udal zerbitzuekiko koordinazioari dagokionez, orokorrean, modu positiboan baloratzen da, baina onartzen da hori profesionalen borondateari esker gertatzen dela gehienbat. Horregatik eskatzen da administrazioek gehiago aintzatesten eta antolatzen duten zeregina izan dadila, hori egin ahal izateko antolaketa zehatz bat ezarrita: denborak, aldizkakotasuna, edukien kontrola...
- Orokorrean, ikastetxeek ez dute uste “Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa” aldatu behar denik. Hala ere, adierazten dutenez, arriskua arina edo moderatua denean esku hartu behar da, arazoa kroniko bihurtu arte itxaron gabe. Halaber, esku hartzeko denborak laburtzea eskatzen dute.
- Gizarte eta hezkuntza arloko txostena ere egokituz jotzen dute, absentismoaz gain haurren edo nerabearen babesgabetasun handiagoa dagoela adieraz dezakeen beste arazorik dagoen ikusten laguntzen duelako.
- Galdetgia egin duten oinarrizko gizarte zerbitzuetako edo udal zerbitzuetako profesionalen ekarpeni dagokienez honako ondorio hauek jasotzen dira:
  - BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duen 230/2011 Dekretua oso modu positiboan baloratzen dute gizarte zerbitzuetako profesionalak, babesgabetasuna izateko arriskuan dauden adingabeekin esku hartzeko beharrezko lan tresna den aldetik, irizpideak bateratzen dituelako, adierazleak sistematizatzen dituelako eta lurralde eta udal esparruen arteko koordinazio hobea sustatzen duelako, konplexua izan arren.
  - Galdetgia egin duten udalerriz guztien ustez, BALORAK ikastetxeen eta gizarte zerbitzuen arteko harremana hobetzen lagundu ahal du haurren babesgabetasunari ekitean; izan ere, babesgabetasunaren tipologiak argitzen dituenez, irakasleak kontzientziatu ahal dira adingabeengan detektatu ahal diren arrisku-eragileen berri emateko duten betebeharrari buruz.
  - Nabarmentzekoa da tresnak eskola absentismoa babesgabetasun arriskuko egoera gisa agertzen duela, “Prestakuntza-premieko arduragabekeria” izeneko tipologian.

- Ikastetxeen arteko koordinazioa udalerrri gehienetan beharrezkotzat jotzen da, eta hobetu ahal dela uste da. Horrela, profesional jakin batzuen mendean egon dadila eragozten da, eta adingabeak babesten dituzten agente gisa dituzten betebeharren partaide bihurtzen dira. Programa eta bideratze-protokoloa hobeto ezagutuz koordinazioa errazagoa izango litzateke.
- Orokorrean, BFAko Lurralde Zerbitzu espezializatuarekiko koordinazioa ona eta arina da, baina BALORA tresna onartuz, balorazio-irizpideak bateratu ahal izango dira, eta erakunde bien arteko komunikazioa arinagoa eta aldian aldikoa izango da.
- Udaletako gizarte zerbitzuen ustez, Lurralde Zerbitzu espezializatuak eskola absentismoa ez du haurren babesgabetasun larriaren arrazoi gisa hartzen, beste adierazle batzuekin batera ageri ez bada.
- Galdetegia egin duten udalerriek oso modu positiboan baloratzen dute Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa, baina BALORA tresnari egokitzeko moldatu behar dela uste dute.
- Era berean, programan ageri den gizarte eta hezkuntza txostena moldatzea beharrezkoa dela uste da.
- Arazo honek Bizkaian 2011-2012 ikasturtean izan duen dimentsioari buruz honako ondorio hauek eskaintzen dira:
  - Portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztizko kopurua 1.602 izan da (Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen %1,6). Kopuru horrek gorakada ekarri du (122 kasu) aurreko ikasturtearekin alderatuta.
  - Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %2,3k eta DBHko ikasleen %3,4k portaera absentista izan du.
  - Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleen portzentajea %0,3 izan da Lehen Hezkuntzan eta %1 DBHn.
  - Ikasturtean Lehen Hezkuntzan metatutako portaera absentista aztertuz gero, portzentajerik handiena %25erainoko tartean kokatzen da. Hau da, ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen %86,8k galdutako eskola-egunek eta ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen %91,1ek galdutakoek ez dute gainditzen bakoitzaren urteko eskola-aldiaren kopuru osoaren %25.
  - DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere, %76,5 Ikastetxe publikoetan eta %68,1 Ikastetxe pribatu itunduetan, %25erainoko tartean biltzen den arren, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Datu positiboa da urterik urte behera egiten duela absentisten kopuruak eskola-egun galduen portzentajerik handienaren tartean (%75 baino gehiago); aurtengo ikasturtean %4,6ra arte egin

du behera Ikastetxe publikoetan eta %5,7 Ikastetxe pribatu itunduetan, ikasle eskolagabetuen datuak erantsiz gero.

- “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, hau da, apiril, maiatz eta ekainean gutxienez erregistrorik ez egoteari dagokionez, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %53,6an gertatu da eta DBHko %50,2an; eta Ikastetxe pribatu itunduetan, %59,8an Lehen Hezkuntzan eta DBHko %52,9an. Azken datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean jartzen gaituzte. Hala, absentismorik larrienak –ikasturte osoan irauten duenak– Lehen Hezkuntzako 372 ikasleri eragiten die (%0,6) eta DBHko 370i (%1). Oinarrizko Irakaskuntzako 742 ikasleri guztira (%0,75).
- Ikasle eskolagabetuei dagokionez, ikastetxe publikoetan %0,03 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,1 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan eskolagabetzea %0,003 izan da Lehen Hezkuntzan, eta %0,3 DBHn.
- Haur Hezkuntzan, ikastetxe publikoetako ikasleen %2,8k izan dute portaera absentista, eta %0,3k ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta eskolagabetzea handiagoak dira Ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %2,3 eta DBHn %3,4) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; horietan Lehen Hezkuntzan %0,3 dute eta DBHn %1. Alde horrek erlazio estua dauka ekonomian, familian, gizartean edo kulturen baztertuta egonik ikastetxe batzuetan edo besteetan eskolatzen den biztanleriaren portzentajearekin. Orokorrean gehiago dira sare publikoan, eta nolana ere desberdina bakoitza kokatuta dagoen zonaldearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalean Lurralde osoan. Aitzitik, bi eskualdek (Ikuskaritzako 3. eta 4. zk. gunek) bereganatzen dituzte ikasle horien %92,2, eta oso adierazgarria da 3. guneari dagokion portzentaje handia (%63,2).
- Absentismo eta/edo eskolagabetzeko arazoek eragindako ikastetxeak ikastetxe publikoen %55,4 eta ikastetxe pribatu itunduen %35,9 izan dira. Baldin eta ikasle absentisten kopurua 6 edo gehiago delako irizpidea badarabilgu, ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen %20 eta ikastetxe pribatu itunduen %7,7 izango da. Datuok absentismoaren eta eskolagabetzearen mapa zehatza marrazten dute gunerik gune:
  - Bizkaian eragindako guneak, batik bat, lehenago esan den bezala, Ikuskaritzako 3. eta 4. guneak dira. Zehatzago Bilboko auzo jakin batzuei dagozkie (Otxarkoaga, Zazpi Kaleak, San Frantzisko, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerritako zenbait auzori.
- Badago irizpide are zorrotzago bat –ikastetxea kaltetuzat jotzea ikasleen %20 edo gehiago portaera absentista eta/edo eskolagabetuarekin duena–, egoera honetan hamar bederatzi Ikastetxe publiko eta Ikastetxe pribatu itundu bat jartzera eramaten gaituena.

- Detektatu diren eta era positiboan bideratu ez diren kasuen %38,7 Ikastetxeetatik Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara edo beste Udal zerbitzu batzuetara bideratu dira. %2 Foru Aldundiko Hautzaroaren Zerbitzu Espezializatueta eta %9 Fiskaltzara (Adingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera azaldu behar da aurten ere: arazo honek eskola-populazioaren zati txiki bati eragiten dion arren, gauza batzuk ez ditugu ahaztu behar:
  1. Kaltetuak (kopuru absolututan 1.602) 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eta euren derrigorrezko eskolatzea da gizarteak hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera ezarritako mekanismoa. Mekanismo hori horrela, benetan, ez da gauzatzen.
  2. Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzek, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, etorkizunean gizarte bazterketa eragiten duten arrazoi egiaztatuetako bat ez ezabatzea dakar.

## 7. PROPOSAMENAK

Batzordeak kontuan hartu ditu zuzendaritza taldeen eta kontsultatutako udal zerbitzuetako teknikarien iritziak, gure ingurune hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak nahiz prozesuari buruz berak egin duen balorazioa. Horrenbestez, beharrezkotzat jo da hobetzeko honako proposamen hauek aurkeztea, haietariko asko iragan ikasturteetako txostenetan daudela; izan ere, arazo honen adierazpenik larrienen murrizketan bilakaera positiboa egiaztatu arren, absentismoaren erregistro kopuruak gora egiten jarraitzen du.

- Ikastetxeei eskatzen zaie, lehenago bezalaxe, euren ahaleginari eustea, eta ahal izanez gero areagotzea ere, bertaratze kontrol zorrotza burutze aldera. Kontrol hori ez da jo behar jokabide iraingarri gisa, lehen urrats gisa baizik, balizko arrisku akademiko, pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeko ikasle kaltetuentzat. Gainera, gogora ekarri behar da ikastetxeak erabaki behar dituela irizpideak hutsegiteak justifikatzeko edo ez justifikatzeko, eta horiek tutore guztiek aplikatu behar dituztela modu berean.
- Halaber, parte hartzen duten eragile guztiei (irakaskuntza taldeak, gizarte-taldeak eta zerbitzu espezializatuak) eskatzen zaie kasua detektatu eta/edo bideratu ostean berehalako eta koordinatutako esku-hartzea egin dezatela.
- Arazoaren dimentsioa kontuan hartuta (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarrizko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke. Esku-hartze horretan, alde batetik bereziki kaltetutako eskualde eta ikastetxeak sartuko lirarteke, eta bestetik, kasu bakoitzaren azterketa. Nolanahi ere, lehen tasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei, eta arreta berezia jarri behar da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehenengo zikloan. Zehazki, berehala

jardungo da Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan detektatzen diren kasuetan, are gehiago Haur Hezkuntzako 5 urteko mailan portaera absentista izan bada. Prestasunez esku hartuko da Lehen Hezkuntzako etapatik Derrigorrezko Bigarreneira iragatean, eta esku-hartzea eta jarraipena bermatuta egongo dira harik eta haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.

- Aurreko atalean azaldutako esku-hartze diferentzialaren barruan, zera proposatzen da: arazo horren eraginpean dauden ikastetxeetan, parte hartzen duten Erakundeetako profesionalak osatutako lantaldeak sortzea. Lantalde horiek portaera absentistaren arrazoiak aztertuko dituzte, portaera hori ezabatzeko jardungo dute eta esku-hartzearen eragingarritasuna ebaluatuko dute.
- Parte hartzen duten profesional guztiek azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez onetsitako BALORA tresnaren eskakizunak aplikatu beharko dituzte.
- Aurten ere, Batzordeak berriro oso modu positiboan baloratu ditu eragile eta Erakunde batzuek eta besteek egindako ahaleginak, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko bederatzigarren ikasturte honetan. Ikastetxe guztiei absentismo eta eskolagabetzeko hiruhilekoko sintesia aurkeztea eskatu izanari esker hobetu egin da kontrola datuak jasotzeko orduan. Alabaina, oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatu behar direla programaren barruan dauden esku-hartzeetan.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren eta Adingabeen Fiskaltzaren arteko topaketak egiten jarraitu beharko litzateke. Aurtengo topaketetan txosten honetako datuen berri emango da eta Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratutako kasu bakoitzaren banakako bilakaera batera aztertzen jarraituko da.
- Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ageri diren EAEko Administrazio publikoen jarduera-printzipioei erantzunez eta beren eskumenak erabilita eta, zehatzago, lege horren 5., 7. eta 41. artikuluetan azaltzen denari dagokionez, Hezkuntza Sailaren eta, absentismoko erarik larrienak zein auzotan gertatzen diren, auzo horiei dagozkien Udalen artean lankidetzako hitzarmenak sinatzea proposatzen da. Hitzarmen horiek, arazo hori gehien jasaten duten eskualde eta Ikastetxeetako gizarte- eta hezkuntza-dimentsioa batera lantzeko berariazko giza baliabideak izendatzeko oinarria izango lirateke.
- Berriro ere, Batzorde honek azpimarratu behar du Lurralde Ordezkaritzak, dagozkion gauzetan, edo Hezkuntza Saileko beste erakunde batzuek, irizpideak zehaztu egin behar dituztela ikasleen absentismo indize handia daukaten ikastetxeak irizpide diferentzialez tratatu daitezzen “Lanpostuen Zerrenda”ri, ikastetxe horietako langileen izendapenari, trebakuntzako proposamenei, laguntza ekonomikoari, etab.i dagokienez. Hala aurreikusten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 81.4 artikuluan zera jasotzen baitu: “Hezkuntza-administrazioek gizarte-baldintzak direla-eta derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen egoera konpentsatzeko beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituko dituzte ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak. Berdin jasotzen du Euskal Eskola Publikoari buruzko

otsailaren 19ko 1/1993 Legeak. 10. artikulua xedatzen duenez, berdintasun printzipioa eta dauden diskriminazio egoerak kentzea eraginkor egite aldera, EAEko urteroko Aurrekontu Nagusietan jasoko dira konpentsazioko fondo batean sartu beharreko kredituak baliabideak hobeto banatu ahal izateko. Halako irizpide diferentzialek ikasleei laguntzeko proiektu eta/edo planak gauzatzearekin lotuta egon behar dute. Ildo horretan, Hezkuntza Sailak Bizkaiko hiru ikastetxetan hasitako apustuarekin aurrera jarraitzea proposatzen da. Hain zuzen ere, ikastetxe horiek 2012-2013 ikasturtean “Esku-hartze Orokorreko Proiektuak” garatuko dituzte.

- Aurreko proposamena sendotu nahian eta Sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79.3. artikuluan ezarrita dagoena aplikatze aldera, plan bereziak prestatzea proposatzen da auzo-, udalerrri-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute. Proposamen hori, txosten honetako 27. orrialdean azaltzen diren auzo eta udalerrietako batzuetarako zehazten da.
- M. Scriven-ek zera esaten zuen: “Hobetzeko xedez, ebaluatu beharra”. Hezkuntza-zein gizarte-esparruan, abian jarriko diren politika eta estrategiak ebaluatu egin behar dira errealitate eta eraginkortasunari egokitu izana egiaztatze aldera. Hortaz, erakundeek eskola-absentismoa ezabatze aldera abian jarritako politika, estrategia eta esku-hartzeak ebaluatzea proposatzen da. Horren haritik, biziki gomendatzen da truke, azterlan eta laguntzako talde bat eratzea. Talde horretan parte hartuko dute tutore, orientatzaile edo zuzendariek, dagokion eskualdeko ikuskatzaileak, Berritzeguneak horretarako izendatuko dituen arduradunak, ikastetxeotan esku hartzen duten udal zerbitzuetako langileak, Jarraipen Batzorde horretako ordezkari batek, UPV/EHUko ordezkari aditu batek eta ISEI/IVEIko pertsona batek, arazoak identifikatzeko eta konponbideak bilatzeko.

## 8. ESKERRAK

Hobetu beharreko elementu asko aurkitzen diren arren –horiek txosten honetan jaso dira– eta eskola absentismoko arazoa guztiz konpondu ez den arren, Jarraipen Batzorde honek, Programa aplikatzeko bederatzi ikasturteotan, profesionalek eta Erakundeek programa gauzatzeko ahalegin handia egin dutela ikusi ahal izan du. Bereziki azpimarratzen da lan handia egin dela absentismoa eta eskolagabetzea detektatzen, jasotako informazioa tratatzen eta arazoa aztertzeko ekimenak abian jartzen, ekimen horien ardatza “haur eta nerabeen interes gorena” dela. Era berean, zirikusia duten Erakunde eta profesionalen koordinazioan egindako urrats garrantzitsuak azpimarratzen dira.

Hemendik bihoa gure esker ona.

**Bilbon, 2012ko abenduaren 12an**

## JARRAIPEN BATZORDEA

### Osabidezko hezkuntzarako partzuergoa:

- Manu Goitia

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- Ana Alonso
- Inmaculada Cereceda

### Bizkaiko Foru Aldundia

- Alazne Madinabeitia
- Nuria Pajares

### EUDEL

- Ainara Bergaretxe- Dorleta Goiburu
- Manuela González- Elsa Sánchez
- Iñaki Iglesias- Eugenia Salterain
- Miren San Martín

# ERANSKINAK





## I. ERANSKINA

### **INFORME 2011-2012 TXOSTENA**

#### **Hezkuntzarako Eskubidea Bermatzeko Programaren Segimendu Batzordea: Galderak Ikastetxeetarako**

#### ***Comisión Seguimiento del Programa para Garantizar el Derecho a la Educación: Preguntas para Centros Educativos***

- 1) Ezagutzen al duzu otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Haur eta Nerabeak zaindu eta babesteko Euskadin? Eta ba al dakizu zelan eragiten dion adingabeekin batera daramazun lanari?  
*¿Conoces la Ley 3/2005 de 18 de febrero de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia en el País Vasco y las posibles implicaciones que tiene en tu trabajo con los y las menores?*
- 2) Ezagutzen al duzu BALORA tresna (haurtzaro eta nerabezeroan arrisku eta babesgabatasuneko egoeren larritasuna balioesteko tresna)?  
*¿Conoces el Instrumento BALORA (instrumento para la Valoración del riesgo de desprotección en la infancia y adolescencia)?*
- 3) Zer-nolako ekarpen edo hobekuntzak ekarri dizkio zure eguneroko lanari?  
*¿Qué aportaciones o mejoras ha implicado en tu trabajo diario?*
- 4) Zure iritziz, zein alderditan eragin diezaioke gailuak gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeen arteko harremanari hobetze aldera?  
*¿En qué aspectos piensas que puede contribuir el instrumento para mejorar la relación entre los servicios sociales y los centros educativos?*

Eta haurren babesik ezari ekiteko?  
*¿y en el abordaje de la desprotección infantil?*

Eta eskola-absentismoan, bereziki?  
*¿y en el absentismo escolar, en particular?*

- 5) Zer zailtasun duzu absentismo egoerak Udaleko Gizarte-Zerbitzuetara bideratzeko?  
*¿Qué dificultades tienes para derivar situaciones de absentismo a los Servicios Sociales Municipales?*

- 6) Absentismo egoerez gain, gainerako babesik ez egoerak bideratzea errazten al dizu?  
*Además de para las situaciones de absentismo, ¿te facilita la derivación del resto de posibles situaciones de desprotección?*
- 7) Zelan balioesten duzu koordinazioa Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuekin? Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?  
*¿Cómo valoras la coordinación con los Servicios Sociales de Base? ¿Qué aspectos crees que hay que cambiar y/o mejorar?*
- 8) Zehatzago, Hezkuntzarako Eskubidea Bizkaian bermatzeko Programari dagokionez:  
*En concreto, en relación al Programa para garantizar el Derecho a la Educación en Bizkaia:*  
Beharrezko al deritzozu Bizkaian dagoen Hezkuntzarako Eskubidea bermatzeko Programa aldatzeari?  
*¿Consideras necesario modificar el Programa para Garantizar el derecho a la Educación existente en Bizkaia?*

Zein aldaketa proposatuko zenuke sartzeko?  
*¿Qué cambios propondrías introducir?*

Uste al duzu Gizarte- eta Hezkuntza-Txostena aldatu behar litzatekeela, Programan ezarria dagoena?  
*¿Crees que habría que modificar el Informe Socio-Educativo establecido en el Programa?*

Zer kenduko zenuke, eta zer gaineratuko?  
*¿Qué suprimirías y qué añadirías?*

Zer zailtasun topatzen duzu aplikatu edo interpretatzeko?  
*¿Qué dificultades de aplicación o interpretación le encuentras?*

**INFORME 2011-2012 TXOSTENA**  
**Hezkuntzarako Eskubidea Bermatzeko Programaren Segimendu Batzordea:**  
**Udaleko Gizarte-Zerbitzuetarako galderak**



***Comisión Seguimiento del Programa para Garantizar el Derecho a la Educación: Preguntas para Servicios Sociales Municipales***

Haur eta Nerabeak Euskadin lagundu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea eta BALORA tresna (haurtzaro eta nerabezaroan arrisku eta babesgabetasuneko larritasuna balioesteko tresna) onartzen duen 230/2011 Dekretua argitaratu ostean:

*Tras la Ley 3/2005 de 18 de febrero de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia en el País Vasco, y la publicación del Decreto 230/2011 por el que se aprueba el Instrumento BALORA (instrumento para la Valoración de la gravedad del riesgo de desprotección en la infancia y adolescencia):*

- 1) Zer-nolakako ekarpen edo hobekuntzak ekarri dizkio BALORAK zure eguneroko lanari?  
*¿Qué aportaciones o mejoras ha implicado el BALORA en tu trabajo diario?*
- 2) Zer zailtasun topatzen duzu aplikatzean?  
*¿Qué dificultades encuentras en su aplicación?*
- 3) Zure iritziz, zein alderditan eragin diezaioteko gailuak gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeen arteko harremanari hobetze aldera, haurren babesik ezari ekiteko?  
*¿En qué aspectos piensas que puede contribuir el instrumento para mejorar la relación entre los servicios sociales y los centros educativos, en el abordaje de la desprotección infantil?*

Eta eskola-absentismoan, bereziki?

*¿Y en el absentismo escolar en particular?*

- 4) Zer hobekuntza sartzen du lurralde zerbitzu espezializatuarekin dagoen harremanean?  
*¿Qué mejoras introduce en la relación con el servicio territorial especializado?*
- 5) Zelan balioesten duzu koordinazioa Ikastetxeekin?  
*¿Cómo valoras la coordinación con los Centros Educativos?*

Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?

*¿Qué aspectos crees que hay que cambiar y/o mejorar?*

- 6) Zelan balioesten duzu koordinazioa Lurralde Zerbitzuekin?  
*¿Cómo valoras la coordinación con el Servicio Territorial especializado?*

Zure ustez, zeintzuk alderdi aldatu eta/edo hobetu behar dira?

*¿Qué aspectos crees que hay que cambiar y/o mejorar?*

- 7) Zer zailtasun ikusten duzu ikastetxeei erantzuna emateko orduan bideratzen dizkizueten babesik ez goeren aurrean?

*¿Qué dificultades ves en dar respuesta a los centros educativos ante las posibles situaciones de desprotección que os derivan?*

Eta, zehatzago, absentismo egoerak bideratzeari buruz?

*¿Y, en concreto, respecto a la derivación de las situaciones de absentismo?*

- 8) Zer zailtasun ikusten duzu heziketa premien aurreko axolagabekeria egoerak Bizkaiko Foru Aldundira bideratzeko orduan?

*¿Qué dificultades ves en la derivación de las situaciones de negligencia hacia las necesidades formativas a la Diputación Foral de Bizkaia?*

- 9) Zehatzago, Hezkuntzarako Eskubidea Bizkaian bermatzeko Programari dagokionez:  
*En concreto, en relación al Programa para garantizar el Derecho a la Educación en Bizkaia:*

Beharrezko al deritzozu Bizkaian dagoen Hezkuntzarako Eskubidea bermatzeko Programa aldatzeari?

*¿Consideras necesario modificar el Programa para Garantizar el derecho a la Educación existente en Bizkaia?*

Zein aldaketa proposatuko zenuke sartzeko?

*¿Qué cambios propondrías introducir?*

Uste al duzu Gizarte- eta Hezkuntza-Txostena aldatu behar litzatekeela, Programan ezarria dagoena?

*¿Crees que habría que modificar el Informe Socio-Educativo establecido en el Programa?*

Zer kenduko zenuke, eta zer gaineratuko?

*¿Qué suprimirías y qué añadirías?*

Zer zailtasun topatzen duzu aplikatu edo interpretatzeko?

*¿Qué dificultades de aplicación o interpretación le encuentras?*

## II. ERANSKINA

### BIBLIOGRAFIA

CASPE, M., LÓPEZ, M. eta WOLOS, C. (2007). *Family involvement makes a difference. 2, winter 2006/2007*. Cambridge: Harvard Family Research Project, Harvard Graduate School of Education.

DEARING, E., KREIDER, H., SIMKINS, S., eta WEISS, H.B. (2006). Family involvement in school and low-income children's literacy performance: Longitudinal associations between and within families. *Journal of Educational Psychology, 98, 653-664*.

DELORS, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madril. Santillana, Unesco Argitalpenak.

DRIESSEN, G., SMITH, F. eta SLEEGERS, P. (2005). Parental Involvement and Educational Achievement. *British Educational Research Journal, 31(4) 509-532*.

FERREIROS, C. E. (2011). *Defensa del derecho a la enseñanza obligatoria: el papel del ministerio fiscal*. Madril. AEQUITAS Fundazioa.

FLECHA, A. eta beste batzuk. (2009). Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed. *Cultura y Educación, 21(2), 183-196*.

GONZÁLEZ, M.T. (2006). Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, Vol 4, nº1*.

HEDIBEL, M.E. (2005). Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, Vol 3, nº1*.

HESS, R.S., MOLINA, A.M eta KOZLESKI, E.B. (2006). Until Somebody Hears Me: Parent Voice an Advocacy in Special Educational Decision Making. *British Journal of Special Education 33(3) 148-157*.

MERRY, M. (2005). Social exclusion of muslim youth in flemish and french speaking Belgian schools. *Comparative Education Review, 49(1), 1*.

RÚE, D. AMELA, M. eta BUSCARONS, M. (2003). *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. Hezkuntzako Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa. Hezkuntza Ikerketako Bigarren Saria. Bartzelona.

EUROPAR BATASUNA. Batzordearen Komunikazioa. EUROPA 2020 "Hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaileko estrategia". Brusela, 2010.